

Urtebete beranduago, Aquarium berria ofizialki inauguratu dute

Mendeurrena ospatzeko aurrera eraman nahi zuen ekitaldia, baina urtebete luzeko atzerapenarekin egin ahal izan du. Atzo goizean, Aquarium berriaren inaugurazioa izan zen, berezko data baino 13 hilabeteren ondoren. 1928aren urriaren 1ean Alfonso XIII. eta Victoria Eugenia Espainiako errege-erregina eta Monakoko Alberto I printzea izan ziren Itsasoko Jauregiaren irekiera ekitaldian. Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteko presidente zen Vicente Laffite izan zen ere iraganeko egun hartan bi estatu buruekin. Atzo aldiz, haien ilobek hartu zuten beren lekua Aquarium berriaren inaugurazioan. Juan Carlos eta Sofia Espainiako monarkekin batera, Hannoverko printzesak ere ez zuen hutsik egin nahi izan. Monakoko Carolinaren birraitona Aquariumaren bultzatzaile nagusienetako izan zen, elkartearen egungo buru den Vicente Zaraguetak gogoratu zuen moduan. Ekitaldia hasi baino minutu batzuk lehenago agintariak kaian jarritako karpa aurrean biltzen hasi ziren. Han ziren, besteak beste, Patxi Lopez lehendakaria, Odon Elorza alkatea, Markel Olano ahaldun nagusia, Rafaela Romero Batzar Nagusietako presidentea eta Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentea. Puntualtasunez iritsi ziren monarkak Pasealeku Berrira. Bokado jatetxearen ondoko terrazan zain zuten Espainiako hirugarren presidenteorde Manuel Chaves-engana hurbildu eta kaian bildutako herritarrak agurtu zituzten, igogailuan kaira jaitsi aurretik.

Oroigarria, sarreran

Museoaren sarrerako zabalgunean dantzari batek ohorezko aureskua dantzatu zuen Udaleko Txistularien Bandak jotako doinuei jarraituz. Errege-erreginen aldeko biba eta Hannoverko printzearen edertasuna goraiatzeko oihu bakan batzuk entzun ziren, gonbidatuei lore eskaintza egiten zieten bitartean. Ondoren, Aquariumeko sarreran inaugurazioaren oroitzapen plaka agerian utzi zuten monarkek eta agintariekin batera, eraikin zaharberrituren bisitaldiari ekin zioten. Bailearen hezurdura eta itsasontzien maketa arteko bidean Zaraguetak anfitrioi lana egin zuen azalpenak emanez. Bitxikeria gisa, Monakoko Carolinari bere aitonaren erretratua erakutsi zion. Instalazioak ikusi ondoren, euskal kultura, ekonomia eta gizartearen ordezkariak betetako Auditorioan berrinaugurazioa hasi zuten. Besteak beste, Juan Mari Uriarte gotzaina, Chillida familiako hainbat kide, eta Adegí, Innobasque edota Merkataritza Bazkundearen arduradunak zeuden aretoan.

Iragana eta etorkizuna, bat

Hasteko, Zaraguetak mintzaldi laburra egin zuen, bi errege-etxeen eta Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen arteko harremana gogoratu eta erakunde publikoen laguntza eskertuz. Zaraguetak, "gure euskara maitean agurtzen zituela azaldu zien gaztelaniaz, baina tamalez, amaierako "eskerrik askoarekin batera horiek izan ziren hizkuntza kutun horretan egindako hitz bakarrak. Jarraian, European bakarria izango den Tunidoen proiektua

delakoari buruzko hainbat azalpen eman zituen Aquariumeko presidenteak. Japonia eta AEBtako antzeko zentruen lankidetzaz izateaz gain, EHU, Southamptoneko Unibertsitateak eta Burdeos I Unibertsitateak bat egin dute proiektuarekin. Azkenik, Donostiako Orfeoia hainbat kidek abestutako kantuek leku egin zioten eguneko beste ekitaldi nagusiarik. Marrazo famatuen bizileku den ur depositua zeharkatzen duen tunelean, zentro berriaren lehen harria jarri zuten gonbidatuek. Jose Mari Arzakek prestatutako kokteleko gutuziak dastatzera joan baino lehen, Zaraguetak opari bana eman zien Espainiako monarkei. Erregeari Saltillo goletaren eskalazko kopia eman zioten. Erreginari, aldiz, XVI mendeko teknikak erabiliz margotutako Santa Sofia eta bere hiru alaben irudia duen pergamina oparitu zioten.

1998an amaitu zituzten Aquariumeko zabaltze lanak eta haiek bukatzearekin batera eraikin zaharra berritzeari ekin zioten. Lan hauekin asebate gabe, etorkizunari begira jarraitzen dute bere arduradunek. Hurrengo pausoa, Tunidoen proiektuaren egoitza izango den 1.900 metro koadroko eraikina Pasealeku Berriaren azpian eraikitzea izango da. Europan bakarra izango den eraikinak 50 milioi euroko kostua izango dutela aurreikusten dute, eta garrantzian, Japonia edota AEB daudenekin soilik pareka daiteke.

Bertan, 4 milioi litroko ur depositua duen anfiteatro ikusgarria, 72 metro koadroko pantaila eta puntako teknologiaz hornitutako ikerketa laborategiak egingo dituzte. Horiekin batera, tamaina handiko zortzi ikerketa depositu eraikiko dituzte, ikertu bide diren hainbat espezie pelagiko, tunidoak nagusiki, biltzeko. Ikerketa arloan, AZTI Tecnalia edota Espainiako Ozeanografia Institutuen babesa izango du zentro berriak. Ikerketa eta dibulgazioaren bidean beste pauso bat emateko asmoa erakutsi arren, ez dakit oraindik ere noiz hasiko diren lanak.

100 bat herritar hurbildu ziren Untzi Museoraino, Espainiako errege-erreginak eta Monakoko Carolina gertu-gertutik ikusi nahian. Aldi berean, dozenaka herritarrek elkarretaratzea egin zuten Nautico ondoan, monarkiaren bisitaren aurka.

"Zubi Gainean jotzen al duzue?"

Kaiak udazkenean eta neguan izan ohi duen itxurak ez du zer ikusirik udakoarekin. Uztaileko eta abuztuko giro jendetsuaren arrastorik ez dago. Atzo paseoan ibiltzeko eguraldia oso aproposa zen. Fresko bai, baina euririk ez. Hala ere, jende gutxi zebilen Kaian. Espainiako errege-erreginaren eta Monakoko Carolinaren bisita zela eta, zenbait ertzainek kontrolatu zuten Kaiko sarrera. Bazegoen Kaian barrena sartzea, baina ertzainek poltsak eta zorroak miatu zituzten. Dena dela, barrurantz joan zirenek ere Untzi Museoraino iritsi ziren. Bertara helduta, bi aukera zituzten. Espainiako erregeen, Monakoko Carolinaren eta besteekin batera Aquariumeko inauguraziora etorritakoen zain egon edo buelta eman.

12:00ak inguru, dozenaka lagunek → askok ikurrina zeramaten eskuetan → elkarretaratzea egin zuten, Donostiako Ezker Abertzaleak deituta, Independentzia bidean, aldaketa politiko eta soziala lelopean. Kaira sartzen saiatu ziren, baina Ertzaintzak Nautiko parean jartzeko agindu zien.

Pankarta zeramatzenak identifikatu zituzten. Besteak beste, "erregeak kanpora, "independentzia, "demokrazia Euskal Herriarentzat eta "adierazpen askatasuna oihukatu zuten. Eusko gudariak abestuta eman zuten bukatutzat elkarretaratzea. Ezker Abertzaleaz gain, Ezker Batua, Alternatiba Eraikitzen →Duñike Agirrezabalaga zinegotziak Errepublikako bandera zintzilikatu zuen udaletxean→ eta Aralar ez ziren bat etorri Espainiako monarkiaren ordezkarien bisitarekin eta ez ziren harrera ekitaldian parte hartu.

Elkarretaratzea egin zuten bitartean, herritar gutxi batzuk zain zeuden udaletxe atarian, Aquariumera zihoazenak bertatik igaroko zirelakoan. "Espero dut hemendik pasatzea; Carolina ikusteak ilusioa egingo lidake, bota zuen emakume adindu batek. Beste hiru emakume, zintzo demonio zeuden 12:00etatik, baina azkenean amore eman zuten, urrutian flashak ikusi zituztenean. Ez zegoen dudarik; Pasealeku Berrian barrena iritsi ziren Juan Carlos, Sofia eta Carolina.

Igogailuan jaitsi ziren behealdera, Aquariumeko sarrera nagusirantz. 100 bat herritarrek ikusi zituzten gertutik, hesien atzealdetik, aparteko estuasunik gabe. Haien artean ziren, besteak beste, Luisa eta Cristina ama-alaba pasaitarrak. "Jakin-minagatik etorri gara, batik bat Carolina ikusteagatik. Beige koloreko jantzia zeraman soinean, eta urre koloreko belarritakoak. Haiekin batera, Kaiko emakume bat zegoen. Hura ere jakin-minak jota hurbildu zen Aquariumera. Ez zegoen ados, ordea, atzoko ekitaldiarekin. "Eta gero Udalak ez ditu Gabonetako argiak jarri ere egin nahi!, zioen haserre. Ekitaldi horietan urdindun jantziarekin izan ziren bost gizonezko, txano dotore eta guzti. Udaltzainak ziren eta ekitaldi berezietako jantzia zeramaten. "Garai batean Zinemaldian erabiltzen omen ziren jantziok; bostpasei baino ez daude, azaldu zion udaltzainetako batek IRUTXULOKO HITZARI. Zorioneko ikuslerik ere izan zen; Kai Harripeko etxeetako balkoia talai ezin hobea bilakatu zen atzo. Dotore-dotore zeuden goiko solairuko bizilagunak, ekitaldiko partaide bailiran. Aquariumetik Portaletara bueltan, gazte batek galdera bota zien udaltzainei: "Zubi Gainen jotzen al duzue?; "Ez, udaltzainak gara, erantzun zioten. Galdera ez zegoen lekuz kanpo, ezta gutxiagorik ere, Zubigain elkartearen danborradak antzeko uniformea dutelako.

Arrantzaleek ere, motxila erakutsi behar

Bitartean, ertzainek lanean jarraitzen zuten. Groseko Albertori, Urumean izaten den arrantzaleetako bati, motxila miatu zioten. Amuak eta gainerako tresnak erakutsi behar izan zituen. Atzo ez zegoen Urumeara arrantzatzerako joaterik, ura "txokolate kolorea zuelako euriteengatik. Motxila irekitzeko orduan, kañabera tentu handiz utzi zuen. "Kainabera oso ona da; ezin da edozein modutan lurrean utzi!, zioen. Nauticotik gertueneko mollara abiatu zenerako, lagunak zituen zain, barrez. "Niri ere miatu didate motxila, goizean goiz. Zira eta guzti ekarri dudanez, ondo prestatuta etorri naizela esan didate. Beharko!, azaldu zuen beste arrantzale batek, Antxonek. Espainiako errege-erreginak eta Monacoko Carolina Maria Cristina hotelera joan ziren Aquariumeko ekitaldia bukatuta. Han ere, ez zen aparteko mugimendurik izan. Duela hiru urte, Asturiasko printze-printzesa izan ziren Merkataritza Ganbararen inaugurazioan, Antiguan, eta atzo baino ikusmin handiagoa piztu zuen bisita hark. Atzokoa oharkabe antzean pasatu zen, baina, hori bai, protesta artean berriro.